

EZBERDINTASUNAK EZBERDINTASUN, ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN DUGU

Hainbat IDEIA
ikasketa honi buruz
batzuk:



BATZUETAN HAUXE JAZOTZEN DA!

- Ezagutzen ez dugunaren beldur gara

Ezezagunari diogun beldurra eta ikara da diskriminazio ororen hasiera.

- Estereotipo eta aurreiritzien bidez jokatzeko dugu

Kulturei buruz dauzkagun aurreiritziek eta azaleko ezagutzak estereotipoak sortzen dituzte, eta ez dira batere erraz desagitzen (Estereotipoak kultura edo talde baten portaera sinplifikatzeko edota orokortzeko bidea ematen diguten mekanismoak dira; esate baterako, emakume guztiek gaizki gidatzen dute, beltz guztiak dantzatzen dira ondo...).

- Diskriminazioa komunikabideen aldetik

Batzuetan, migrazio fenomenoaren itxuraldaketa bidez, delinkuentzia eta immigrazioa lotzen dituzten titularrak eta albisteak ikusten ditugu. Hori gertatzen zaigu segurtasun ezaren eta immigrazioaren arteko lotura gehiegi baloratzeagatik edo kultura eta erlijioak ez ezagutzeagatik eta horien ikuspegi desitxuratua izateagatik.


BA AL ZENEKIEN...?

- Sarritan, ahaztu egiten zaigu **migrazioa mundu osoko fenomenoa** dela. Urrunago joan gabe, euskaldun asko joan behar izan ziren Ameriketara, eurentzako eta euren familientzako etorkizun hobeagoaren bila.
- Badago **kazetaritzaren dekalogo etikoa**, immigrazioarekin lotutako berriak emateko. Komunikabide batzuek immigrazioaren ikuspegi alarmista eskaintzen dute. Immigranteen kopurua osotara ez da %3ra heltzen estatuan, eta hori Frantzia, Alemania eta bestelako herrialdeetako baina askoz txikiagoa da.



EZBERDINTASUNAK EZBERDINTASUN, ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN DUGU

1. jarduera:




"DETEKTIBEAK GARA"

Azter dezagun nolakoa den gure familia. Zer dakizue zuen familiari buruz? Nor dira zure aitona-amonak? Nondik datoz? Non bizi izan dira? Beti bizi izan al dira hemen?

FAMILIA ZUHAITZA egitea proposatzen dizuegu, zuen neba-arreba, guraso eta aitona-amonekin.

EZBERDINTASUNAK EZBERDINTASUN, ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN DUGU

FAMILIA ZUHAITZA



EZBERDINTASUNAK EZBERDINTASUN, ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN DUGU

2. jarduera:

MIGRAZIOA GURE FAMILIAN



NOR DA?



NON JAIO ZEN EDO ZIREN?



NORA JOAN ZEN EDO ZIREN?